



2021EKO OTSAILAREN 17AN UDALBATZAK IZANDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURA

BILDUTAKOAK:

ALKATEA: Unai Elgoro Oianguren.

BERTARATUAK: Karmele Uribarri Urresti, Pilar Leanizbarrutia de Bizkarralegorra, Xabier Ochoa Muñoz, Ainhoa Cabero Garcia, Koldo Zubillaga Beltran de Heredia, Alex Dietmar Walter Seiler, Fco. Javier Mar Medina, Mikel Uribeetxebarria Aldalur, Ion Albizu Gonzalez, Irati Pagoaga Zaloña, Jasone Garzia-Etxabe Lopez, Ione Ojea Ugarte eta Gorka Gabilondo Jauregi.

EZ BERTARATUAK:

KONTUHARTZAILEA: Begoña Arenaza Bengoa

IDAZKARIA: Fco. Javier Mendizabal Garate

Aretxabaletan, 2021eko otsailaren 17an, arratsaldeko 18:30ak direnean, goian aipatutako jaun-andreak elkartu dira Udaletxeko Udaltzatar Aretoan, bilkura egin eta deialdiaren aztergai zerrendan zehaztutako gaietara buruz hitz egitearren.

1. 2021KAOR0002 eta 2021ILAZ0001 espedienteak. 2021eko Udal aurrekontua, lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoa.

Alkateak jakinarazi du aurtengo aurrekontua 12 milioi eta erdi pasatxokoa dela. Aurten, PEAS eta konbentuko obrak ageri dira proiektu estrategiko bezala eta zorpetzea 2.7 milioikoa izango da. Martxoan jakingo da zenbat beharko den.VI. kapitulua %20 igotzen da bi proiektu hauekin. Gero, Kurtzebarri eskola berritzea dugu, baina hau maila apalagoan dago. Bi obrak egiteko bi ekitaldi aurreikusten dira. Bestalde, udalak aurten kiroldegiaren mailegua ordaintzen du eta datorren urtean konbentuaren erosketaren azken zatia. Legegintzaldi hau amaitzerako, udala gai izango da zor guztia estaltzeko.

Ion Albizuk esan du aurrekontua negoziatzeko prozesuan oso margen gutxi egon dela, betiko moduan jarraitu da. Proiektuak beste modu batean tratatu behar dira ekarpenak egin ahal izateko. Bestalde, jakinarazi du proiektua jasotzerakoan teknikariek aurrekontua ez zutela ezagutzen.

Edukietara dagokienez, pertsonala eta zerbitzu batzuk ez dira ikutzen. Egunen batean horretaz hitz egin beharko da; izan ere, bi proiektu markatzen dute aurrekontua. Aurrekontua itxia izanik, ez da logikoa posibleak ez diren gauzak sartzeko eta horrexegatik proposamen posiblistak sartu dituela argitu du. Jarraian, adierazten du egindako proposamenetik, talka plana, erretiratu egiten duela eta 2. eta 3. proposamenak, laguntza psikologikoa eta alderdien ekarpenei buruzkoa, batera bozkatzea proposatzen du. 4. proposamena, frontoiko eguzki plakei buruzkoa da eta azken proposamena bide batzuk konpontzei buruzkoa.

Alkateak aurrekontuak zurrina eta marjen gutxikoak direla baieztatzen du; zerbitzuak eta gastuak mantenduz inbertsioak egin nahi dira. Forma aldetik, aurrekontuak beti horrela egin izan dira eta hemendik aurrera beste modu batean aurkeztuko ditugu; horretarako, kontu-hartzaile berriaren laguntza izango dugu. Jarraian jakinarazi du emendakinen guztien aurka bozkatuko duela, onartuz gero, aurrekontuetan aldakuntzak egin behar baitira.

Bigarren emendakinen kasuan teknikariek kontsultatu genielako jakinarazi du eta ez zutela garbi ikusten. Foru Aldundiarekin ere egon zirela gehitu du. Plakak kiroldegian egotea garbi ikusten du, baina ez frontoian. Kiroldegian plakak jarriko dira eta egokiagoa deritzo kontsumoa jaisten ahalegintzea beste bide batetik joatea baino. Azkenik, bideen kasuan 20.000 euro txertatu direla dio, baina gauzak argitu arte ez da urratsik emango.

Ion Albizuk esan du aurrekontua onartzeko formari buruz ari denean aurrekontuak egiteko modu desberdinak daudela. Esaterako, zinegotzien banaketa nolakoa den kontuan hartuta, beste modu batera izango zen. Emendakinei dagokienez, batzuk onartu direla eta beste batzuk ez onartzen du.



Jarraian, 2. emandakina bozkatzea proposatzen da eta gero aurrekontuak. 2. emendakina bozkatzen da eta EH Bilduko sei zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ/PNVren aurkako zazpi zinegotzien botoekin ez da onartzen honako emendakina:

“1 0401.227.230.00.07 2021 partida 3.000€-tan handitzea proposatzen da.

- Partida berri sortzea proposatzen da 4. Kapituluari 7.000€-rekin –

Pandemiaren ondorioz jendea sufritzen ari den neke eta arazo psikologikoei aurre egiteko laguntza psikologikoa jasotzeko laguntzak ematea proposatzen da. Hori gauzatzeko bi bide proposatzen dira:

Profesional ezberdinen berri eman eta “desbideratzeko” telefono bat aktiba-tzea. Orain dauden baliabideak handituz.

- Nahi duen profesionalekin bono sistema bat martxan jartzea terapien zati bat ordaintzeko.

Adibidez:

- Lehenengo 3 zita dohain
- Zita bakoitzeko deskontu bat gehieneko kopuru arte. “

Jarraian, aurrekontuak, plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda bozkatzen dira eta EAJ/PNVko zazpi zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko sei zinegotzien botoekin zera erabaki da:

LEHENA: 2021eko udal aurrekontua, plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda onartu.

2021eko PLANTILA ORGANIKOA - PLANTILLA ORGANICA 2021

UDALA- AYUNTAMIENTO

LANBIDEAREN IZENA DENOMINACION DE LA PLAZA	LANP.KOPURUA Nº DE PUESTOS	TALDEA GRUPO	EGOERA SITUACION	OHARRAK OBSERVACION
* IZAERA NAZIONALEKO GAIKUNTZAKO ESKALA * ESCALA DE HABILITACION DE CARACTER NACIONAL IDAZKARITZAKO SUBESKALA / SUBESCALA DE SECRETARIA				
IDAZKARIA / SECRETARIO	1	A1	I.	
KONTUHARTZAIETZA- IDAZKARITZA SUBESKALA/ SUBESCALA DE SECRETARIA-INTERVENCION				
KONTUHARTZAILE-DIRUZAINA INTERVENTOR-TESORERO	1	A1	I.	
* ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA * ESCALA DE ADMINISTRACION GENERAL ADMINISTRARIEN SUBESKALA / SUBESCALA ADMINISTRATIVA				
ADMINISTRARIA ADMINISTRARIA	1	C1	V	
SARRERAKO ADMINIS.LAGUNTZ. AUXILIAR ADMINISTRATIVO RECEP.	2	C2	2P	
* ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA * ESCALA DE ADMINISTRACION ESPECIAL				
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA AUXILIAR DE BIBLIOTECA	1	C1	P	
KONTUHARTZAILEKO TEKNIKARIA TECNICO DE INTERVENCION	1	A2	P	*
EKONOMI ARLOKO TEKNIKARIA TECNICO ÁREA ECONÓMICA	1	A1	V	
KIROL TEKNIKARIA TECNICO DEPORTIVO	1	A2	P	
GIZARTE LAGUNTZAILEA ASISTENTE SOCIAL	2	A2	P	
EUSKARA TEKNIKARI-ITZULTZAILEA TECNICO-TRADUCTOR DE EUSKERA	1	A2	P	
APAREJADOREA ARQUITECTO TÉCNICO O APAREJ.	1	A2	V	
HIRIGINTZA TEKNIKARIA TECNICO DE URBANISMO.	1	A2	P	
ZERBITZUETAKO BURUA JEFE DE SERVICIOS	1	C1	P	
UDALTAINGO BURUA JEFE DE POLICIA MUNICIPAL	1	C1	V	



UDALTZAINA POLICIA MUNICIPAL	4	C1	1 V 3 P	
EHORZLE/PEOI ENTERRADOR/PEÓN	2	E	P	
KULTUR TEKNIKARIA TECNICO DE CULTURA	1	A2	P	
KULTURA LAGUNTZAILEA AUXILIAR DE CULTURA	1	C2	P	
PEOIA PEON	1	E	P	
DIRUBILKETAKO ETA IDAZKARITZAKO ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO DE RECAUDACIÓN Y SECRETARIA	1	C1	P	
INFORMATIKOA INFORMATICO	1	A1	P	

LANBIDEAREN IZENA DENOMINACION DE LA PLAZA	LANPOSTU KOPURUA Nº DE PUESTOS	LANBIDE MAILA CATEGORIA PROFESIONAL	SARTUTAKO TALDEA GRUPO ASIMILACION	EGOERA SITUACION	OHARRAK OBSERVACION
Drogomenpekotasun Teknikaria Técnico en Drogodependencias	1	2	A2	F	**

- * Kontuhartzaitzaren lanpostua behin behineko izaeraz betetzen du.
Cubre interinamente la plaza de Interventor.
- ** Drogomenpekotasun teknikaria Udala honetan lanegunaren %60a ematen du.
La técnico en Drogodependencia tiene una dedicación en este Ayuntamiento del 60 % de la jornada laboral.

BEHIN BEHINEKO LANGILEA
PERSONAL EVENTUAL

LANBIDEAREN IZENA DENOMINACION DE LA PLAZA	LANPOSTU KOPURUA Nº DE PUESTOS	LANBIDE MAILA CATEGORIA PROFESIONAL	SARTUTAKO TALDEA GRUPO ASIMILACION	EGOERA SITUACION	OHARRAK OBSERVACION
Komunikazio arduraduna Responsable de comunicación	1	--	-A1-	--	

F.P. URATS-GAIN ZAHARREN EGOITZA

LANBIDEAREN IZENA DENOMINACION DE LA PLAZA	LANP. KOPURUA Nº DE PUESTOS	TALDEA GRUPO	EGOERA SITUACION
Zuzendaria Directora	1	A2	P
Klinika Laguntzailea Auxiliares Clínicos	4	C2	P

LANBIDEAREN IZENA DENOMINACION DE LA PLAZA	LANPOSTU KOPURUA Nº DE PUESTOS	LANBIDE MAILA CATEGORIA PROFESIONAL	SARTUTAKO TALDEA GRUPO ASIMILACION	EGOERA SITUACION
Klinika Laguntzailea Auxiliares Clínicos	1	7	C2	F



2021eko LANPOSTUEN ZERRENDA - RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO 2021

UDALA - AYUNTAMIENTO

KARRERAKO FUNTZIONARIEI GORDETAKO PLAZAK- PLAZAS RESERVADAS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

IZENA DENOMINACION	LANP.KOP Nº PUESTOS	LANP.MOTA TIPO PUESTO	HORNIT. ERA FORMA PROV.	DEST.OSAG.MA NIVEL COMP.DES	DEKAZIO BEREZIA DEDICACION ESPECIAL	OSAGARRI ESPEZIFIKOA COMPLEMENTO ESPECIFICO	BULEGOA DEPEND.	LANPOSTU HORRETARAKO BEHARREZKO BETEBEHARRAK REQUISITOS EXIGIDOS PARA SU DESEMPEÑO					BEHARREZKO TITULAZIOA TITULACION EXIGIDA	OHARRAK OBSERVACIONES	
								ADSKRIPZIOA ADSCRIPCION							HIZKUNTZ ESK. PERFIL LINGÜÍSTICO
								TALDEA GRUPO	ESK. ESC	AZP.ESK SUBESC.	KLASEA CLASE	KOEFIZ. COEFICI.			DER.DATA FECHA PREC.
IDAZKARIA SECRETARIO	1	S	C	21	22 %	29.746,56	SG	A1	HN	S	2	4	92.07.31		
KONTUHATZAILEA INTERVENTOR	1	S	C	21	20 %	29.734,80	IT	A1	HN	I	2	4	94.07.31		
HIRIGINTZAKO ADMIN. ADMINISTRATIVO URBAN.	1	N	C	15	--		OU	C1	AG	AA	-	2	92.07.31	Batxilergoa edo teknikoa Bachiller o técnico	Hutsik Vacante
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA AUX. DE BIBLIOTECA	1	N	C	14	--	13.777,48	SG	C1	AE	SC	C.E	3	98.04.30	Batxilergoa edo teknikoa Bachiller o técnico	
EKONOMI ARLOKO TEKNIKARIA TÉCNICO ÁREA ECONÓMICA	1	N	C	21	--	29.734,80	IT	A1	AE	T	TS	3	--	Ekonomi zientziak Ciencias económicas	Hutsik Vacante
KIROL TEKNIKARI TECNICO DEPORTIVO	1	N	C	17	15 %	19.597,63	SG	A2	AE	SE	CE	4	96.04.30	E.F.	
GIZARTE LAGUNTZAILEA ASISTENTE SOCIAL	1	N	C	17	--	13.947,06 14.112,10	SG	A2	AE	T	TM	3	02.04.01 92.07.31	A.S.	
EUSKERA TEKNIKARIA TECN. TRADUC.-EUSKERA	1	N	C	17	--	15.299,45	SG	A2	AE	SE	CE	4 TG		Tekniko-Injenieri; Unibertsitate-Diplomadun; Teknika-Arkitektu; Lanbide-Hezkuntzako 3.mailako titulua edo baliokidea Ingeniero técnico, Diplomado Unibersitario, Arquitecto técnico, Formación profesional de 3.er grado o equivalente	
KONTUH. TEKNIKARIA TECNICO DE INTERV.	1	N	C	17	--	13.617,00	IT	A2	AE	T	TM	3	99.12.30	Diplomado en C. económicas o empresariales	
SARRERAKO ADM.LAGUN. AUX.ADM. RECEPCION	2	N	C	11	--	15.650,97 16.080,51	SG	C2	AG	AX	--	3	13.01.28	G.E.S.O	
HIRIGINTZAKO TEKNIK. TECNICO DE URBANISMO	1	N	C	17	--		OU	A2	AE	T	TM	3	19.09.11	Arkitektu teknikoa / Obra publikoetako ingenieri teknikoa Arquitecto técnico / Ingeniero técnico de obras públicas	Hutsik Vacante
HIRIGINTZAKO TEKNIK. TECNICO DE URBANISMO	1	N	C	17	15%	19.267,57	OU	A2	AE	SE	CE	3	97.06.02	Arkitektu Teknikaria	
ZERBITZUETAKO BURUA JEFE DE SERVICIOS	1	N	C	15	25%	28.017,22	OU	C1	AE	SE	PO	2	--	Batxilergoa edo teknikoa Bachiller o técnico	
UDALTZAINGO BURUA JEFE POLICIA MUNICIPAL	1	N	C	15	15%	27.552,04	PM	C1	AE	SE	PM	3	92.07.31	Batxiler Bachiller	Hutsik Vacante
UDALTZAINA POLICIA MUNICIPAL	4	N N	C	15	15%	19.118,95 17.615,55 17.615,55 17.403,78	PM	C1	AE	SE	PM	2	02.04.29 92.07.31 04-07-26 05-02-28	Batxilergoa, teknikoa edo baliokidea Bachiller, técnico o equivalente	1 Hutsik Vacante 1
EHORZLE/PEOI ENTERRADOR/PEON	1	N	C	8	25 %	19.787,24	OU	AP LT	AE	SE	PO	1	--	Eskola ziurtagiria Certif. Escolar	
EHORZLE/PEOI ENTERRADOR/PEON	1	N	C	8	25%	19.132,13	OU	AP LT	AE	SE	PO	1	01.05.28	Eskola ziurtagiria Certif. Escolar	
KULTURA TEKNIKARIA														Tekniko-Injenieri; Unibertsitate-Diplomadun; Teknika-Arkitektu;	



TECNICO CULTURA	1	N	C	17	15%	21.974,74	SG	A2	AE	SE	CE	3	01.04.02	Lanbide-Hezkuntzako 3.mailako titulua edo baliokidea Ingeniero técnico, Diplomado Unibersitario, Arquitecto técnico, Formación profesional de 3.er grado o equivalente
KULTURA LAGUNTZAIL AUXILIAR DE CULTURA	1	N	C	11	--	14.342,93	SG	C2	AG	AUX	--	2	01.04.02	G.E.S.O.
PEOI PEON	1	N	C	8	--	18.913,77	OU	AP LT	AE	SE	PO	1	04.02.16	Eskola ziurtagiria Certificako escolar
DIRUBILKETAKO ETA IDAZKARITZAKO ADMINISTRIA ADMINISTRATIVO DE RECAUDACIÓN Y SECRETARIA	1	N	C	14	--	13.353,93	IT	C1	AG	AA	--	2	06.03.13	FPII, batxilergoa edo baliokidea. FPII, bachiller o equivalente.
INFORMATIKOIA INFORMATICO	1	N	C	21	--	20.351,49	SG	A1	AE	T	TS	4	08.12.05	Informatika ingeneritza informatikoa Informático ingeniero informático

LAN PERTSONAL FINKOARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK
PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL FIJO

IZENA DENOMINACION	LANP.KOPU Nº PUESTOS	LANP.MOTA TIPO PUESTO	HORNIT. ERA FORMA PROV.	PROF.MAILA CATEG.PROF	ASIMIL.MAILA DESTI.OSAG. ETA O.E. NIVEL. ASIM. COMP. DESTIN Y C.E.	DEDIK DEDIC	BULEGOA DEPEND.	LANPOSTU HORRETARAKO EXIJITAKO BETEBEHARRAK REQUISITOS EXIGIDOS PARA SU DESEMPEÑO						BEHARREZKO TITULAZIOA TITULACION EXIGIDA	OHARRAK OBSERVACIONES
								ADSKRIPZIOA/ADSCRIPC ION			HIZKUNTZ ESK. PERFIL LINGÜISTICO				
								TALDEA GRUPO	ESK. ESC	AZP.ESK SUBESC.	KLASEA CLASE	KOEFIZ. COEFICI.	DER.DATA FECHA PREC.		
DROGOMEK. TEKNIK. TECNICO DROGODEP.	1	N	C	2	17	-	G	A2	AE	T	TM	3	01.04.02	A.S./G.L.	

BEHIN BEHINEKO PERTSONALA
PERSONAL EVENTUAL

IZENA DENOMINACION	LANP.KOPU Nº PUESTOS	LANP.MOTA TIPO PUESTO	HORNIT. ERA FORMA PROV.	PROF.MAILA CATEG.PROF	ASIMIL.MAILA DESTI.OSAG. ETA O.E. NIVEL. ASIM. COMP. DESTIN Y C.E.	DEDIK DEDIC	BULEGOA DEPEND.	LANPOSTU HORRETARAKO EXIJITAKO BETEBEHARRAK REQUISITOS EXIGIDOS PARA SU DESEMPEÑO						BEHARREZKO TITULAZIOA TITULACION EXIGIDA	OHARRAK OBSERVACIONES
								ADSKRIPZIOA/ADSCRIPC ION			HIZKUNTZ ESK. PERFIL LINGÜISTICO				
								TALDEA GRUPO	ESK. ESC	AZP.ESK SUBESC.	KLASEA CLASE	KOEFIZ. COEFICI.	DER.DATA FECHA PREC.		
Komunikazio arduraduna Responsable de comunicación	1													Kazetaritza Periodismo	11.000 €/urteko 11.000 €/año



F.P. URATS-GAIN ZAHARREN EGOITZA
KARRERAKO FUNTZIONARIEI GORDETA KO PLAZAK- PLAZAS RESERVADAS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

IZENA DENOMINACION	LANP. KOP Nº PUESTOS	LANP. MOTA TIPO PUESTO	HORNIT. ERA FORMA PROV.	DEST. OSAG. MA NIVEL COMP. DES	DEDIK DEDIC	OSAGARRI ESPEZIFIKOA COMPLEMENTO ESPECIFICO	BULEGOA DEPEND.	LANPOSTU HORRETARAKO BEHARREZKO BETEBEHARRAK REQUISITOS EXIGIDOS PARA SU DESEMPEÑO						BEHARREZKO TITULAZIOA TITULACION EXIGIDA	OHARRAK OBSERVACIONES
								ADSKRIPZIOA ADSCRIPCION			HIZKUNTZ ESK. PERFIL LINGÜISTICO				
								TALDEA GRUPO	ESK. ESC	AZP. ESK SUBESC	KLASEA CLASE	KOEFIZ. COEFICI.	DER. DATA FECHA PREC.		
ZUZENDARIA DIRECTORA	1	N	C	17	24 %	26.751,24	SG	A2	AE	T	TM	4	01.04.02	A.S./ G.L.	
KLINIKA LAGUNTZAI. AUXILIARES CLINICOS	4	N	C	11	10%--	16.702,06 16.702,06 16.916,83 16.916,83	SG	C2	AE	SE	CE	2	98.12.21	KLINIKA LAG. AUX. CLINIC.	

LAN PERTSONAL FINKOARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK
PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL FIJO

IZENA DENOMINACION	LANP. KOPU Nº PUESTOS	LANP. MOTA TIPO PUESTO	HORNIT. ERA FORMA PROV.	PROF. MAILA CATEG. PROF	ASIMIL. MAILA DESTI. OSAG. O.E. NIVEL ASIM. COMP. DESTIN Y C.E.	DEDIK DEDIC	BULEGOA DEPEND.	LANPOSTU HORRETARAKO EXIJITAKO BETEBEHARRAK REQUISITOS EXIGIDOS PARA SU DESEMPEÑO						BEHARREZKO TITULAZIOA TITULACION EXIGIDA	OHARRAK OBSERVACIONES
								ADSKRIPZIOA/ADSCRIPCION			HIZKUNTZ ESK. PERFIL LINGÜISTICO				
								TALDEA GRUPO	ESK. ESC	AZP. ESK SUBESC.	KLASEA CLASE	KOEFIZ. COEFICI.	DER. DATA FECHA PREC.		
KLINIKA LAGUNTZAI. AUXILIARES CLINICOS	1	N	C	7	11	--	SG	C2	AE	SE	CE	2	98.12.21	KLINIKA LAG. AUX. CLINIC.	



BIGARRENA: Hamabost eguneko jendaurreko epean alegaziorik aurkezten ez bada, 2021eko aurrekontua, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda behin betikoz onartu direla ulertuko da.

2. 2020IHON0013 espedientea. 2B sektoreko hitzarmena.

Alkateak esan du hitzarmen honen bidez Bruesak bukatu gabe utzitako bi bloke amaitu nahi direla. Jatorrizko hitzarmenean etxebizitza tasatuak bezala ageri dira, legea oraindik onartu gabe zegoenean. Salmentak errazte aldera aldaketak egin dira. Gehieneko prezioa ezartzen da, baina kontuan hartu behar da gaurko merkatua 2001ekoa baino merkeagoa dela. Udalak urbanizazioa jaso zuen eta alde bat exekutatu. Urbanizazio horretatik, baina, argindarraren instalazioa falta da. Horretarako, bankuko abalak exekutatzea aurreikusten da. Zortea kenduta, helburua da prezioak goitik mugatzea eta hamalau hilabete barru gai hau ixtea.

Ion Albizuk esan du hitzarmen honekin ikusten dela errealitateak administrazioa gainditu egin duela eta alkateak erantzun dio merkatua ezarri den mugatik behera dagoela.

Jarraian bozketa egiten da eta aho batez erabaki da:

LEHENA: Aretxabaletako Udalaren eta WIP Aretxabaleta Shell, S.L.Uren arteko 2b sektorearen hirigintza hitzarmena, r3/01 eta r3/02 lurzatiei dagokiena onartu.

BIGARRENA: 20 eguneko jendaurreko epea zabaldu alegazioak aurkezteko. Epe barruan alegaziorik aurkezten ez bada, hitzarmena behin betikoz onartu dela ulertuko da.

3. 2020IKIB0004 espedientea. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren lizitazioa.

Karme Uribarrik esan du etxez etxeko laguntza zerbitzua udalak duen zerbitzu potentenetakoa dela. Udalaren aldetik esfortzua egin da prezioa igotzeko eta langileen baldintzak bermatu nahi izan dira. Azkenean, helburua lortu dela uste du.

Irati Pagoagak aurreratu du abstentzioa bozkatuko dutela. Egia da gaia konplikatu egin dela: Alde batetik udala dago, bestetik langileak eta, azkenik, enpresa. Azken bi hauen artean gatazka bat egon da eta igoera bat jaso da. Hori ondo dagoela deritzo eta baita langileak ondo egotea ere. Prezioa zehazteko prozedurarekin ados ez dagoela azaldu du. Kalkulu bat egin behar da eta bere alderdiak egindako kalkuluaren arabera, 23,23 eurokoa da ateratzen den kostua, BEZ gabe. Hau da 20.000 euro inguruko aurrezpena egon daiteke. Jarraian, idazkariari galdetu dio pleguetan gastuak desglosatuta egon behar diren eta subrogazio taula eransterakoan langileen soldata gordina jaso behar den, aplikagarria den hitzarmenarekin batera eta idazkariak erantzun dio baietz

Karme Uribarrik esan du EH Bilduren proposamena sorpresa bat izan dela. Proposatutako aholkularitza baten bitartez egitea eta erantzuna izan da hori gastu bat dela. Egin den lanaren bitartez prezioa jarri da eta erantzun dio orain arte ez dutela ezer esan. Orain horrelako posizio batekin etortzea ez da izan batera gustukoa.

Irati Pagoagak gogoratu du kirol batzordean gauza bera egin zela. Egia esan, hor ez da gasturik egon, baina egia da baita ere zaila dela datuak eskuratzea.

Alkateak esan du prezioa berak jarri duela hutsune bat zegoelako. Sindikatuei ez zaie interesatzen hitzarmen bat egotea eta nahiago dute herriz herri aritzea. Gipuzkoako herrietan egon diren lizitazioak begiratu dira. Esaterako, Azpeitian 23 euro inguruan lortu da, baina kontuan hartu behar da marjen batekin jokatu behar dela.

Ion Albizuk esan du hitzarmena ez egoteagatik egoera korapilatu egiten dela, baina kosteak kalkulaterakoan frogatzen da subkontratazioa ez dela hain ona. 26 euroko kostua ez dago zuzenean kudeaketagatik hain urruti. Udalak kalkuluak egin behar ditu. Adibidez, kiroldegia lizitatu da egindako kalkuluetan oinarrituta. Kasu honetan udalak ez du horrelakorik egin eta horrexegatik bere zinegotziek egin dutela gehitu du.



Karmele Uribarrek esan du oso zatarra dela horrela egitea. Gaur bertan egin den bileran egon direla erantsi du eta momentu honetan aurkeztea oso zatarra da. Ion Albizuk erantzun du ez duela eskatzen lizitazio prezioa aldatu behar denik baizik eta kalkuluak demostratzea. Alkateak esan du ez badu preziorik jartzen honek ez duela aurrera egiten. Ion Albizuk erantzun dio paktua sinatu ondoren kalkuluak egin behar zirela, legez horrela delako. Alkateak gogoratu dio Bizkaian badagoela hitzarmena bai kiroldegiaren kasuan eta baita ongizate arloan. Ion Albizuk erantzun dio enpresetan ere badaudela eta alkateak eranstean du baietz.

Ondoren, bozketa egiten da eta EAJ/PNVko zazpi zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko sei zinegotzien abstentzioarekin erabaki da:

LEHENA: Etxez etxeko zerbitzua kontratatzeke espedientea onartu.

BIGARRENA: Kontratua arautuko duten administrazio-klausula zehatzen eta baldintza teknikoaren pleguak onartu.

HIRUGARRENA: Kontratazio honi dagokion 442.000 euroko gastua baimendu 1.0401.227.231.10.99.2021 partidaren kontura, eta gainontzekoa hurrengo ekitaldien kontura onartuko da.

LAUGARRENA: Lizitazioa ireki, kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko, eta agintzea dagokion iragarkia argitara dadila kontratatzailearen profilean.

4. 2020IHON0014 espedientea. Aretxabaletako kanpo argiteria publikoa berritzeko Debagoieneko Mankomunitatearen eta Aretxabaletako Udalaren arteko hitzarmena. Mailegoa.

Alkateak gogoratu du gai hau gobernu batzarretik pasa zela, baina osoko bilkuratik pasa behar da 10 urteko konpromisoa duelako. Mankomunitateak mailegua bat eskatu du argiteria berritzeko eta udalak urtero kopuru bat ordainduko dio mankomunitateari maileguari aurre egiteko. Jarraian bozketa egiten da eta aho batez erabakitzen da:

LEHENA: Aretxabaletako kanpo argiteria publikoa berritzeko Debagoieneko Mankomunitatearen eta Aretxabaletako Udalaren arteko honako hitzarmena onartzea.

KANPOKO ARGITERIA BERRITZEKO DEBAGOIENA MANKOMUNITATEAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENA

2020ko abenduaren 3an, Udal honek hitzarmena sinatu zuen Debagoieneko Mankomunitatearekin kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko baterako proiektua garatzeko, energia dibersifikatu eta aurrezteko institutuak finantzatuta.

Hitzarmenak hala dio:

ARETXABALETAKO KANPO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA ETA ARETXABALETAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

Arrasaten, 2019ko azaroaren 27an.

AGERTU DIRA

MAITE ANTÓN LENO, Debagoieneko Mankomunitateko lehendakari bezala, eta haren izenean eta ordezkartzan.

UNAI ELKORO OIANGUREN, Aretxabaletako Udaleko alkate bezala, eta haren izenean eta ordezkartzan.

ESKU HARTZEN DUTE

Alde biek beraien karguei dagozkien betekizunen arabera; elkarri gaitasun osoa aitortzen diote hitzarmen hau egiteko, eta horretarako,

ADIERAZTEN DUTE



Gure ondorengoan geroa bermatzeko gizakiok dugun erronkarik garrantzitsuenaren ingurumenaren zaintza da. Aldaketa klimatikoa geldiarazteko lehenbailehen neurriak hartu behar dira. Horrela baieztatu du Pariseko itunak, ezinbestekoa da herrialde eta pertsona orok helburu horiekin konpromisoa hartzea. Besteak beste, energiaren kontsumoa murriztea eta energiaren eraginkortasuna areagotzea dira landu beharreko ildo nagusienetarikoz batzuk.

Debagoieneko Mankomunitateak energia alorrean lan desberdinak garatzen ari da. Horrela, eskualdeko energia sektorean aritzen diren industrien balio kateei buruzko azterketa burutu zuen eta Debagoieneko Mankomunitateak, Arrasaten duen egoitzan, diagnosi energetikoa burutu zuen eta horren ondorioz elektrizitateko kontratuen potentzien egokitzapena eta energiaren kontsumoa murrizteko neurriak hartu dira.

Lerro horretan, 2017an, Udal eta Mankomunitatearen artean burutu zen, IDAEk (Instituto para la Diversificación y el Ahorro de la Energía) 2015eko apirilaren 28an eta BOEn 2015eko maiatzaren 5ean argitaratutako kanpo argiteriaren instalazioak berritzeko laguntza deialdiaren markoan, kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko lehen proiektu bateratua.

2017ko apirilaren 8an IDAEk argitaratutako deialdi berriaren markoan, Mankomunitateak argiteria publikoaren instalazioak berritzeko bigarren proiektu bateratua aurkeztu zuen. Bigarren proiektu honetan Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako eta Eskoriatzako udalerrietan aurreikusten ziren ekintzak.

Bigarren proiektu hau ere IDAEk onartu eta diruz laguntzea erabaki zuen eta ondorioz horniketa eta instalazio lanak burutzeko deitutako lehiaketa publikora atera ziren, beti ere, zatika edo udalerrika bereziz. Aretxabaletako, Arrasateko eta Bergarako loteak esleitu ziren; Eskoriatzako huts deklaratu zen. Mankomunitateak aurtengo maiatzean sinatu zituen TECUNI, S.A. enpresarekin esleitutako loteen kontratuak.

Bestalde, IDAeri bigarren proiektu hau garatzeko Mankomunitatea eta udalen arteko konpromisoa adierazteko, 2018ko ekainaren 19an Mankomunitateak eta Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen horren hirugarren erabakian zera azaltzen zen: *"Horretarako, IDAEn behin betiko ebazpenaren egunetik kontaktzen hasita, hilabeteko epean, emandako maileguaren zenbatekoa eta baldintzak ezagutzen direnean, Mankomunitateak proiektuan parte hartzen duten udal bakoitzarekin hitzarmen bat sinatuko du egin beharreko ekarpenen zenbatekoak eta epeak zehaztuz."*

Mankomunitateak aipatutako behin betiko ebazpena jaso duenez, alde bietan honako hitzarmen hau sinatzen dute, ondorengo klausulen arabera

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Debagoieneko Mankomunitateko estatutuetako 7. artikulua, Mankomunitateko helburua aipatzen duena, aplikatuz, beheago sinatzen dutenek, proposaturiko ekintza, artikulua horretako hirugarren atalari lotzea adostu dute. Atal horrek bereziki jasotzen baitu "udaletako ekintza konkretuen koordinaketa" egitea.

Ondorioz, Aretxabaletako udalak batera idatzitako proiektua garatzeko egin beharreko kudeaketa ekintzak burutzeko agindu zion Mankomunitateari eta, bide batez, Debagoieneko Mankomunitatea baimendu zuen, proiektuan sartutako Aretxabaletako instalazioetan egin beharreko ekintzak burutzeko eta proiektuaren exekuzio egokirako hartu beharreko erabakiak hartzeko. Hori guztia, instalazio horien titularitatearen kalterik gabe.

BIGARRENA.- Idatzitako proiektuaren kudeaketa eta exekuzioari dagokionez, Debagoieneko Mankomunitateak ondorengo lanak burutu ditu edo burutuko ditu:

- Mankomunitateak, IDAE (Instituto para la Diversificación y el Ahorro de la Energía)ri Mankomunitatea eta Udalen artean garatutako proiektua aurkeztu zuen.
- Debagoieneko Mankomunitateak, IDAEk onartutako proiektuan jasotako hornikuntza eta instalazio lanak, lehiaketa deialdi publikoaren bukaeran esleitu eta kontratatu zituen.



- Debagoieneko Mankomunitateak mailegua sinatuko du IDAEk egindako deialdian jasotako araudiaren oinarriari lotuko dena.
- Proiektua gauzatzeko, Udalak lan teknikoen zuzendaritza eta jarraipen lanak burutuko ditu, horretarako Debagoieneko Mankomunitatearen laguntza izango duelarik eta Mankomunitateak proiektuaren exekuzioaren ondoriozko zertifikazioak ordainduko ditu.
- Debagoieneko Mankomunitateak IDAEekin sinatutako maileguaren amortizazio kuotak ordaindu ahal izateko, Aretxabaletako udalari dagozkion ekarpenak kobratuko dizkio.
- Debagoieneko Mankomunitateak IDAEko laguntzekin bateragarriak diren laguntza deialdiak aztertuko ditu eta horrela badagokio, eskaerak prestatu eta bideratuko ditu. Eskaera horiek onartuak izaten badira Mankomunitateak kudeatuko ditu, dena den, laguntza horiek IDAEekin sinatutako mailegua amortizatzeraz bideratuko ditu.

HIRUGARRENA.- Aretxabaletako udalak, ondorengo lanak burutuko ditu:

- Kanpo argiteriako instalazioen berriztapenarekin erlazionaturiko lanak zuzendu eta jarraituko ditu behar besteko asistentzia teknikoa emanez, horretarako argiteri instalazioen arloan dituzten tekniko trebatuenak proiektuaren zerbitzura jarriko ditu.
- Debagoieneko Mankomunitateak IDAEkin kontraturiko maileguaren amortizazioari aurre egin ahal diezaion, Aretxabaletako udalak egindako inbertsioen arabera dagozkion kuotak garaiz ordainduko ditu.

LAUGARRENA.- Aretxabaletako argiteria berritzearen kosteak eta horien amortizatorako egin beharreko ordainketak.

Aretxabaletako argiteria berritzeak 206.572,80,- euroko kostea izango du, BEZ barne. Koste hori estaltzeko, Mankomunitateak eskatutako mailegua amortizatzeke, Aretxabaletako udalak, 2021eko urtarrilean hasita eta bederatzirte, 1.912,71,- euroko hileko kuota ordainduko dio Debagoieneko Mankomunitateari.

PROPOSAMENA:

Hitzarmen hori sinatuta Udal honek hartzen dituen konpromiso ekonomikoei aurre egiteko, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 22.artikuluaren arabera, ondorengo gastua onartzea hainbat urtetarako:

<u>EKITALDIA</u>	<u>EKITALDIRAKO ZENBATEKOA(€)</u>
2021	22.952,52
2022,2023,2024,2025,2026,2027,2028,2029	22.952,52

BIGARRENA: Alkatea ahalmentzea hitzarmena izenpetzeko udalaren izenean eta berau ordezkatzuz.

Eta besterik ezean, aipatutako eguneko zazpirak eta hogeirenean bilera amaitu egin da, eta nik, idazkariak, bertan gertatutakoa egiaztatzen dut.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARIA